


LEGAZPIKO AGENDA 21EKO FOROA



GAIAK:

- LEGAZPIKO AGENDA 21EKO FOROAREN BILAKAERA ERRONKA BERRIEN AURREAN: PROPOSAMENA ETA KONTRASTEAK
- ERRONKA: ETA GURE HELBURUA “ERABILERA BAKARREKO PLASTIKORIK GABEKO LEGAZPI” LORTZEA BALDIN BADA?
- OHARRAK ETA ABISUAK

2019ko azaroaren 28an, ostegunean, 18:30etik 20:00etara
Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan

Sormen-lana elkarrekin sortzeko artea da

1. AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Gaur, 2019ko azaroaren 28an, aurtengo Legazpiko Agenda 21eko Foroaren 5. bilera egin dugu. Saio berezia izan da eta Foroaren bilakaera aztertu dugu.

Parte hartzaileekin partekatu ditugu ondokoak:

- Legazpiko Agenda 21eko Foroa 2001ean sortu zen. Hortaz, 18 urteko ibilbidea egin du dagoeneko.
- Epe motzean asko aldatzen den munduan gaude eta, horren aurrean, ezinbestekoa da adinez nagusi den Legazpiko Agenda 21eko Foroa egokitzea eta berritzea.
- Helburu eta asmo horrekin, uda ondoren Foroaren bilakaeraren gaineko barne-hausnarketa egin genuen udaletxean, ikuspegi teknikotik nahiz politikotik. Inma Hernandez Agenda 21eko Foroaren arduradun teknikoarekin batera ondoko ordezkari politikoek hartu zuten parte hausnartze-saio horretan: Koldobike Olabide alkatea (EAJ), Javier Iraeta zinegotzia (EAJ), Edurne Gonzalez zinegotzia (EH Bildu), Ibon Alcelay zinegotzia (EH Bildu), Oscar Valbuena zinegotzia (EH Bildu) eta Alberto Bezunartea zinegotzia (Legazpiko berdeak eta independenteak).

Testuinguru horretan, gaurko Agenda 21eko Foroaren saioak bi helburu nagusi izan ditu:

1. Legazpiko Agenda 21eko Foroak izan dezakeen bilakaera partekatu eta aberastea, erronka berriak kontuan hartuz.

2. Hasierako urratsa ematea, erronka kolektiboa ezarriz:

Eta gure helburua "Erabilera bakarreko plastikorik gabeko Legazpi" lortzea baldin bada?

Azkenik, saioaren azkeneko minutuak datozen egunetan Legazpin gauzatuko diren ekimen desberdinen berri emateko erabili ditugu.

Ezarritako helburuak beteta, bileraren gako nagusiak jaso ditugu agiri honetan.

2. PARTE HARTZAILEAK

19 pertsonak hartu dute parte -10 emakume eta 9 gizon- Legazpiko Agenda 21eko Foroaren gaurko bileran. Honako hauek zehazki:

Jose Ramon Hernandez	Nagusilan
Manuel Fernandez	Nagusilan
Pilar Makibar	Bizilaguna
Mari Cruz Lizarazu	Bizilaguna
Iñaki Mauleon	Domingo Agirre eskola
Javier Arrieta	Bizilaguna
Juanjo Zubillaga	Buztintegi
Sorkunde Uzkudun	Haztegi Ikastola
Juan Pedro Agirre	Bizilaguna
Juan Carlos Agirre	Bizilaguna
Olatz Zabaleta	Ingurugela Legazpi
Isa Sanz	Udaleko Haur, Nerabe eta Gazteen zerbitzua
Eduarne Gonzalez	Udal zinegotzia
Oscar Valbuena	Udal zinegotzia
Inma Hernandez	Jasangarritasun eta Agenda 21eko teknikaria
Koldobike Olabide	Udal alkatea
Javier Iraeta	Udal zinegotzia



Eta Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, dinamizazio-lanetan.

Guztioi eskerrik asko! 18 urteko ibilbidea egin eta gero Legazpiko Agenda 21ak oraindik asko esateko duela partekatu dugu eta pozgarria izan da bide eta aukera berriak esploratuz indar handiagoa izan dezakeela ikustea; halaxe bizi izan dugu garukoan. Jarraitzeko indarra!

3. AZTERTUTAKO GAIK ETA ONDORIOAK

I. LEGAZPIKO AGENDA 21EKO FOROA: NOLA IKUSTEN DUGU BERE BILAKAERA?

Gaia landu aurretik, tartetxo bat hartu dugu norberak bere lehenengo proiektzioa egin dezan. Ondoren, taldearekin partekatatu ditugu udal teknikariak eta politikariek egindako hausnarketatik ateratako lehenengo ideiak. Eta, jarraian, elkarriketa ireki batean, Legazpiko Agenda 21eko Foroaren bertsio berriaren gakoak azaleratu dira.

UDAL TEKNIKARIAK ETA POLITIKARIEK EGINDAKO HAUSNARKETA: HAINBAT GILTZARRI

Laburbilduz, barne-hausnarketaren ideia nagusiak azaldu ditugu:

18 urteko ibilbidea aintzat hartuz:

- Zertarako balio izan du Legazpiko Agenda 21eko Foroak?
 - Udala herritarrengana hurbiltzeko.
 - Udala, elkarteak eta bizilagunak modu bateratuan lan egitea ahalbidetzen duen lekua izateko.
 - Udal intereseko proiektuak ikuspegi publiko eta kolektibotik lantzeko eta kontrastatzeko. Zenbait proiektutan, gainera, parte hartze handia lortu da.
 - Parte hartzea indartzeko, kalitatezko parte hartzea.
 - Iraunkortasunaren inguruan kolektibitatea eta kultura sortzea ahalbidetzeko.
 - Sentsibilizatzeko eta pedagogia egiteko ahalmen handiko erreminta da Foroa.
- Zeintzuk dira etorkizuneko erronkak?
 - Foroan parte hartuko duten pertsonen kopurua handitzea; horrezaz gain, pertsona desberdinen parte hartzea sustatzea, parte hartzeko moduetan kalitatea galdu gabe.
 - Agenda 21eko Foroaren lana eta lortutakoak aintzat hartzea eta aitortzea.
 - Udal barruan, Legazpiko Agenda 21eko Foroaren funtzionamendua erraztuko duen lan on bat egingo dela bermatzea.

Nolako izan liteke Legazpiko Agenda 21eko Foroaren bilakaera? Lehenengo ideiak


- **ASMOA:** jarrai dezala izaten...
 - Udala eta herritarrak elkartzeko gune egonkorra, irekia eta dinamikoa.
 - Batik bat, iraunkortasunarekin eta, bereziki, klima-aldaketarekin zerikusi duten erronkak eta gaiak lantzeko gunea.
 - Gune irekia, parte hartzeari dagokionez, eta ahal izanez gero, parte hartze anitza eta egonkorrekin.
 - Egiteko moduak zaintzen duen gunea, eta hitz egiteko moduak, eta entzuteko moduak, ...
 - Kalitatezko parte hartzea eta balio pedagogikoa izango duen gunea.
- **FORMATUA/PLANTEAMENDUA:** hauxe proposatzen dugu ...
 - Urtean, gutxi gorabehera, 9 saio egiten jarraitzea, hilean behin.
Argitu beharreko zalantzak: ostegunetan egiten jarraituko dugu? Hasiera-ordua zertxobait aurreratuko dugu? Batzar Aretoan elkartzen jarraituko dugu?
 - Aurreikusitako 9 saioak bi motatakoak izan daitezke:
 - Bilera batzuk udalerrientzako interesgarriak diren proiektuak lantzeko izan daitezke eta, batik bat, klima-aldaketarekin zerikusia duten proiektuak eta gai askotarikoak: mugikortasuna, hirigintza, paisaia, hezkuntza, energia,.... Eguneko formatoarekin jarraituko genuke horrela.
 - Beste bilera batzuk udal mailako erronka kolektiboa lantzeko eta gauzatzeko erabil daitezke; erronka hori iraunkortasunarekin eta Eskola Agenda 21arekin lotutakoa izango da eta beste erakunde eta eragileen parte hartzea eskatuko du: ikastetxeak, merkatariak, enpresak, elkarteak,....
Ikuspegi berri honek ahalegin handiagoa eskatuko du: prestakuntza, aukeratutako gai edo erronka hobeto ezagutzea, beste eragileen konpromisoak lortzea, komunikazioa lantzea, eta zenbaitetan, agian diru-kopuru berri bat sartzea udal aurrekontuetan ondoren neurriak hartu behar badira....
 - Parte hartzea bilatzea, handitzea eta dibertsifikatzea, egiteko moduetan kalitatea zainduz.
 - Foroaren ahalmen pedagogikoa eta sentsibilizatzeko gaitasuna mantentzea eta horretan sakontzea.
 - Foroaren eta bertan parte hartzen duten pertsonen konpromisoa eta lana aintzat hartzeko eta eskertzeko aukerak eta moduak aztertzea.
- **JOKO-ARAUEN EGUNERATZEA:** hauxe proposatzen dugu...
 - Legazpiko Agenda 21eko Foroaren ikuspegia eta eguneratutako joko-arauak idatziz jasotzea, erabakiko denaren arabera. Horrela errazago azalduko dugu Foroa zer den, zertarako eta nola funtzionatzen duen.

- **IZENA:** hemen gure proposamena...
 - “Legazpiko Agenda 21eko Foroa” orain arteko izena eguneratzea eta garai berrietara egokitzea (Agenda 2030, Garapen iraunkorraren helburuak, eta abar.).

Nola hartu dute parte hartzaileek hasierako proposamen hori? Hona hemen erantzuna.

PROPOSAMENA PARTE HARTZAILEEKIN KONTRASTATZEA ETA ABERASTEA: EZTABAIDATUTAKO ALDERDIAK ETA ADOSTUTAKOAK

PARTE
HARTZAILEEN
IRITZIA

- 
- Gustura hartu da Legazpiko Agenda 21eko Foroa eguneratzeko proposamena.

Hauek mantendu beharrekoak direla uste dugu: foro irekia, parte hartzailea eta pedagogikoa izatea eta bilerak egiteko maiztasuna.

Proposamenak iraunkortasun-erronka kolektiboak lantzerantz bultzatzen gaitu eta beste eragile batzuekin loturak eta elkarlana bilatzen saiatzera garamatza, eginkizun horretan belaunaldien arteko ikuspegia txertatuz –gai izan beharko ginateke 25 eta 45 urte arteko pertsonengana eta familietara iristeko–, borondatezko konpromisoak aintzat hartuz,....
 - Horrezaz gain, honako adostu dugu:
 - Izena eguneratzea; aurrerantzean Legazpiko Agenda 2030 Foroa izango da, Agenda 2030 eta Garapen iraunkorraren helburuekin bat etorritik.
 - Bilerak egiteko ordua aurreratzea, eguna eta tokia mantenduz – ostegunak, Batzar Aretoan–. Bilerak 17:30ean hasi eta 19:00etan bukatuko ditugu beste eginbehar batzuekin bateragarriak izan daitezen.

- Urola telebistan Foroaren saio bakoitzaren laburpena zabaltzea; horretarako topaketa bakoitza laburtzen duten panel grafikoak erabili daitezke. Legazpiarrei Foroan zer egiten dugun eta lana nola egiten dugun azaltzeko modu erraza izan daiteke.
- 2020ko hasieran Legazpiko Agenda 2030 Foro berrituaren aurkezpen ofiziala antola daiteke; aurkezpen horretan orain arteko ibilbidea aitortu daiteke, parte hartzen duten herritarren lana eskertu,... Azken finean, Foroaren ibilbidea balioan jartzea izan daiteke aurkezpenaren xedea.



II. UDAL MAILAKO ERRONKA KOLEKTIBO BAT JARTZEKO PROPOSAMENARI DAGOKIONEZ: NOLA EGIN DEZAKEGU?

Iraunkortasun gaietan Legazpiko Agenda 2030 Foroak udal mailako erronka kolektibo bat lantzeko ideia ontzat eman ondoren, hasierako ideiatik abiatu gara:

Eta gure helburua “Erabilera bakarreko plastikorik gabeko Legazpi” lortzea baldin bada?

PROPOSAMENA PARTE HARTZAILEEKIN KONTRASTATZEA ETA ABERASTEA: EZTABAIDATUTAKO ALDERDIAK ETA ADOSTUTAKOAK

PARTE
HARTZAILEEN
IRITZIA

- Interesgarria eta erakargarria iruditzen zaigu udal mailako erronka kolektibo bat lantzea.
- Nolakoa izan behar du landuko dugun erronka hori?

Kontuan hartu beharreko hainbat irizpide aurreratuko ditugu baina gehiago sakondu beharra dago:

- Erakargarria, interesgarria
 - Egingarria, errealista, gure ahalmenara egokituko dena
 - Konpromisoetara eta helburuetara lotuko dena
 - Neurgarria, emaitzei eta eraginari dagokienez
 - Beste eragile batzuekin elkartzea, saretzea eta harramenak sortzea ahalbidetuko duena: haurrak eta familiak, merkatariak, enpresak, elkarteak...
 - Hezitzailea
 - Sormena eta egiteko modu berriak erabiltzea sustatuko duena: gamifikazioa edo beste batzuk.
- Zehazki, zein izan daiteke Legazpiko Agenda 2030 Foroaren lehen erronka?
 - “Erabilera bakarreko plastikorik gabeko Legazpi baterantz” aukera bat izan daiteke. Taldeak erronka interesgarria dela uste du baina oso konplexua era berean:
 - Kontuan hartu behar dugu gure gizartean eguneroko gauza dela plastikoa erabiltzea (eta batik bat erabilera bakarreko plastikoa) eta beraz, ez da erraza izango plastikoaren erabilera murrizteko edo erabilera horrekin bukatzeko neurriak hartzea. Zaila da erabilera bakarreko plastikoen jatorrian eragitea –dendara dagoeneko ontziratuta datozen jakiak edo produktuak iristen dira–, eta zenbaitetan eragina du osasun arloko araudiak –adibidez, harategietan eta arrandegietan plastikoa saihestearren tupperrak erabiltzea bultzatu ondoren, orain ez da gomendagarria listeriaren arazoa dela-eta.
 - Era berean, herritarren erabakia da zer eta nola erosi egunerokoan.
 - Legazpirako ideia eta proposamen zehatzak azter ditzakegu, plastikoen erabilera gradualki murrizte aldera; aukerak eskaini daitezke, herritarrek kopia ditzaketan ereduak sortu –azokan poltsa berrerabilgarriak erabiltzea adibidez–, besteengan eragina izan dezaketen pertsona eredugarriak bilatuz,...

- “Legazpiko parkeak garbi mantentzearen alde” beste aukera bat da. Badu aurrekoarekin zerikusia eta taldea kezkatuta agertu da parkeak zikinak egoten direlako eta herritarrek Legazpiko espazio publikoak behar bezala mantentzeko gizalegezko ohiturak ez dituztelako.
 - Horren adibide argia da Latxartegi parkea baina badira beste batzuk ere: Kale Nagusia, Urtatzako oinezkoen kalea eta beste batzuk.
 - Haurrak txikiak direla, ikastetxeetan egiten den lan pedagogikoak jarraipenik izango ez balu bezala eta nolabait “erlaxatu” egin gara espazio publikoan agertu beharreko gizalegezko portaeraren inguruan.
 - Nola landu dezakegu gai hori, ikuspegi pedagogikoago batetik eta gizalegezko portaera egokiak sustatuz?

Dena den, datorren urteko Legazpiko Agenda 2030 Foroaren lehenengo saioa aipatutako bi kontu horiek batuko dituen erronka kolektiboa lantzeari eskainiko diogula pentsatu du taldeak.

Bitartean, horretaz pentsatzen jarraitzeko konpromisoa hartu dugu denok, aukera, ideia eta proposamen guztiak baligarriak izan daitezkeelako udal mailako erronka osatzeko. Aurrera!

4. OHARRAK

Gaurko saioa amaitzeko:

- Eskari bat:

Foroko parte hartzaile batek iritsi zaion eskaria mahaigaineratu du: hirigunetik Mirandaolara doan bide tartean komun publiko berria jartzea eskatu du herritar batek.

- 2 ohar:
 - Bihar, azaroaren 29a, Memoriaren eguna da. Hori dela eta, Legazpiko Bizikidetzak mahaiak “Zubiak” filma eskainiko du Latxartegi aretoan; ondoren Maixel Lasarekin hitz egiteko aukera izango da.
 - Datorren asteburuan Olentzero Azokaren bigarren edizioa ospatuko da Legazpin.

5. ESKERRIK ASKO

Legazpiko Agenda 2030 Foroaren eskutik Legazpiko eta, ahal dugun neurrian, munduko iraunkortasunaren alde lan egiteko asmo sendoa dugula berresten dugu.

Hori esan eta gero, datorren abenduaren 12ko Agenda 2030 Foroaren saioan San Ignazio auzoari buruz eta klima-aldaketara egokitzeko irizpideak jarraituz auzoko espazio publikoa hobetzeko egingo den esku-hartzeari buruz hitz egingo dugu. Beraz, denbora dugu berritutako Foroan landuko dugun erronka kolektiboan pentsatzeko.... 2020ko hasieran izango da hori.

Helburu hori aurrean dugula eta astebururako osatu den agendarekin, amaitutzat ematen dugu gaurko saioa. Abenduaren 12ra arte!

BITARTEAN, ONDO IZAN ETA ESKERRIK ASKO GUZTIO!!